



aztiker

SOZIOLOGIA IKERGUNEA

Gasteizen, 2021eko abenduaren 10ean

EUSKALDUNTZERAKO HEZKUNTZA AKORDIO BAT

AZTIKER IKERGUNEA

www.aztiker.eus

AURKIBIDEA


1. BABES SOZIAL ZABALA DU EUSKARAK	3
1.1. EAEKO HERRITARREK APUSTU ARGIA EGITEN DUTE EUSKALDUNTZEAREN ALDE..	3
1.2. EZ DIRA ELEBITASUN HELBURUAK BETETZEN	6
1.3. MURGILTZE EREDUAK EMAITZA ONENAK, BAINA ZAILTASUN GEROZ ETA GEHIAGO DITU 8	
1.4. ONDORIO SEGREGATZAILEAK ETA DISKRIMINATZAILEAK DITU	10
2. GIZARTE INGURUNEA BALDINTZATZAILE ETA ERAGILE GISA	12
2.1. HIZKUNTZA-KONPETENTZIETAN ETA EUSKARA ERABILERAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK	12
2.2. LEHEN HIZKUNTZA ETA FAMILIA-HIZKUNTZA.....	13
2.3. EREMU SOZIOLINGUISTIKOA	14
2.4. KULTURA ETA AISIA	15
3. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK	17
4. DATUEN ITURRIAK	18

1. BABES SOZIAL ZABALA DU EUSKARAK

1.1. EAEKO HERRITARREK APUSTU ARGIA EGITEN DUTE EUSKALDUNTZEAREN ALDE


EAEko herritarrek hizkuntzak ikasteari, oro har, garrantzia handia ematen diote (%70etik gora garrantzia oso handia euskara, gaztelania edo ingelesa jakiteari). Aldi berean, **garrantzitsua litzateke Euskadiko biztanle gehienek euskara ikatea** (%51 guztiz ados eta %32 nahikoa ados).

Zenbateko garrantzia du zuretzat egungo haurrek...



Grafikoa: Aztiker - **Iturria:** Prospekzio Soziologikoen Kabinetea – Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza. Euskara. Jarrerak eta iritziak (Landa lana: 2014/12/17-18).

Garrantzitsua litzateke Euskadiko biztanle gehienek euskara ikatea




Grafikoa: Aztiker - **Iturria:** Prospekzio Soziologikoen Kabinetea – Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza. Euskara. Jarrerak eta iritziak (Landa lana: 2014/12/17-18)

Zentzu horretan, **herritarren gehiengoak nahi du 'Euskal Herrian etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz egitea, eta euskarak orain baino presentzia handiago izatea gizartean'** (%55). 'Bi hizkuntzetan egitea, euskarak gizartean orain duen presentzia berdinarekin' nahi dutenak %23 osatzen dute. Bestalde %13 batek 'Euskal Herrian euskaraz bakarrik egitea' nahiago luke. Aldiz, kontrakoa, gaztelaniaz bakarrik egitea nahi dutenak %1 dira.

Bi galderetatik sortutako aldagaia:


"Zure ustez etorkizunean zein hizkuntzetan hitz egin beharko litzateke Euskal Herrian?" eta "Eta zuri zer gustatuko litzazuke, euskarak gizartean duen presentzia handitzea, orain bezala mantentzea edo gutxitzea?"




Grafikoa: Aztiker - **Iturria:** Prospekzio Soziologikoen Kabinetea – Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza. Euskara. Jarrerak eta iritziak (Landa lana: 2014/12/17-18)

Euskararen aldeko jarrera hau ez da iritzi soila. Matrikulazio datuetan ikus daitekeen bezala, ekintzetan ere islatzen da. Haur Hezkuntzako datuak aztertuta (eta gainontzeko mailetan joera berdina da), geroz eta gehiago dira umeak D ereduari matrikulatzen dituztenak. Egun matrikulazioen %80tik gora dira eredu horretan.

HAUR HEZK. Z1



HAUR HEZK. Z2




Grafikoa: Aztiker - **Iturria:** Hezkuntza-sistemari buruzko estatistikak. Matrikula: Serie historikoak. 2003-2004 ikasturtetik 2021-2022 ikasturtera.


Herrialde eta udalerrien artean D ereduari matrikulatuta dauden portzentajeetan aldeak baldin badaude ere, D ereduari, eredu nagusia bihurtu da EAEko ia udalerriz guztietan.

EAEko erregimen orokorreko unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak. 2019/20

D ereduaren proportzioa, EAEko udalerrietan




Hizkuntza eredu nagusia, EAEko udalerrietan



Grafikoa: Aztiker - **Iturria:** Hezkuntza-sistemari buruzko estatistikak. Matrikula: Serie historikoak. 2003-2004 ikasturteetik 2019/20 ikasturtera. HIZKUNTZA EREDUEN EMAITZAK

1.2. EZ DIRA ELEBITASUN HELBURUAK BETETZEN

2021eko Ebaluazio Diagnostikoaren arabera, LH4n ikasleen %62,2 elebidunak dira eta DBH2n %45,6. Hau da, alderantziz esanda, LH4n ikasleen %37,8k eta DBH2n %54,4k ez du elebitasun helburua lortzen.



Grafikoa: Aztiker - **Iturria:** Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. ISEI-IVEI. 2021 I EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN DIAGNOSTIKOA.

Euskararen kasuan, LH4n %34,1ek eta **DBH2n %53,3k ez du euskara maila nahikoa eskuratzen**. Gaztelaniaren kasuan %15,7 eta %14,2 da ehunekoa.


Euskara jakin bai, baina gaztelania ez dakitenak oso gutxi dira eta denboran aurrera egin ahala 0ra hurbiltzen dira. Hau da, euskara dakienak, gaztelania jakingo du goiz ala berandu. Gaztelania dakienak, euskara jakingo du edo ez.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legean (10/1982 Legea) elebitasuna helburutzat proposatzen da.

*"Abiapuntutzat hartzen badugu euskarazko eta/edo gaztelaniazko hasierako mailan dauden ikasleek ez dutela lortzen sistema osorako ezarritako elebitasunaren helburua, elebidunen tipologiako lehen hiru kategoriak (euskaraz eta gaztelaniaz gaitasunik gabeko ikasleak, ikasle erdaldun elebakarrak eta ikasle euskaldun elebakarrak) honako honen adierazletzat hartu beharko lirateke: **hezkuntza-sistemak, bere kabuz, ez duela elebitasunaren helburua betetzen.**"* ED 2021, 124. or.


Elebitasun maila horiek lortzeko umeen gehiengoa euskarara erakarriak izan dira, baina haien proportzioa 2009tik gutxitzen doa LH4n (-4,1) eta are gehiago DBH2n (-15,5). Euskarara erakarriak ez direnak, 2009tik mantendu egin dira LH4n ia heren bat izaten (-0,1), baina DBH2n nabarmen hazi dira (+13), ia ikasleen erdia izateraino. Hau da, LH4n ez da lortzen etxetik euskara ez dakitenekin emaitzak hobetzea eta DBH2n nabarmen okertu dira.

Euskararen galeren eta irabazien bilakaera. LHko 4. maila eta DBHko 2. maila. ED09-ED19.



Grafikoa: Aztiker - **Iturria:** Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. ISEI-IVEI. 2021 I EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN DIAGNOSTIKOA.

Euskararen galeren eta irabazien bilakaera. LHko 4. maila eta DBHko 2. maila. ED19.



Grafikoa: Aztiker - **Iturria:** Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. ISEI-IVEI. 2021 I EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN DIAGNOSTIKOA.


1.3. MURGILTZE EREDUAK EMAITZA ONENAK, BAINA ZAILTASUN GEROZ ETA GEHIAGO DITU

Helburuaren ez-betetze maila ez da homogenea sare eta hizkuntza eredu guztietan. A ereduan ia inork ez du helburua betetzen publikoan, ez LHn ez DBHn. A eredu pribatuan, LHn erdia baino gehiagok ez du betetzen eta DBHn %80ra igotzen da proportzio hori.

B ereduari dagokionez, publikoan elebitasuna betetzen ez dutenak LH4n bi heren izatetik, %80 izatera pasatzen dira DBH2n. Eta B eredu pribatuan %44tik %64ra igotzen da ehunekoa.

Azkenik, D ereduak ere ez du bermatzen elebitasuna. LH4n D eredu publikoan ikasleen %32,8k ez du elebitasun helburua lortzen eta pribatuan %23,6k. DBHn %49,1era eta %57,8ra igotzen dira proportzio horiek.

Elebitasunaren helburua lortu ez duten ikasleen proportzioak, hizkuntza eredu eta titulartasunaren arabera, 2019




Grafikoa: Aztiker - **Iturria:** Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. ISEI-IVEI. 2021 I EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN DIAGNOSTIKOA.


Oro har, emaitzarik txarrenak A ereduan eta gero B ereduan jasotzen dira. Ikasmailan gora egin ahala, emaitzak okerragoak dira. Eta publikoan emaitzak okerragoak dira, pribatuan baino, DBHko D ereduan izan ezik, alderantziz gertatzen dela.

Datu hauek bilakaeran jarrita, ikusten dena da elebitasun helburua lortzen dutenak geroz eta gutxiago direla, sare eta maila guztietan, baita D ereduan ere.

Ikasleen ehunekoaren bilakaera, elebitasun tipologiaren arabera, D eredu publikoan




Ikasleen ehunekoaren bilakaera, elebitasun tipologiaren arabera, itunpeko D eredu



Grafikoa: Aztiker - **Iturria:** Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. ISEI-IVEI. 2021 I EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN DIAGNOSTIKOA.

Ikastetxeetako euskara erabilera orokorra ikusita, D ereduari jaitzi egin da, baina hezkuntza osoa kontuan hartuta ordea, erabilerak mantendu edo zertxobait gora egin du. Horrek azalpen bat izan dezake: D ereduak geroz eta haur gehiago jasotzen ditu, abiapuntuan euskaratik urrutiago dauden haurrak hain zuzen ere. Horrek, bestelako eskuhartzerik gabe, ekarri du D ereduaren emaitzen okertze bat, baina aldi berean sistema osoaren hobetzea.

Ikasleen euskararen eskolako erabilera orokorra (erabilera-tasa esleituak) ikasle guztiak eta D ereduak. LH4 eta DBH2 mailetako ikasleak, EAE, 2011-2017 (%)




Grafikoa: Aztiker - **Iturria:** Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza saila. ARRUE IKERKETA, 2011-2017.

D ereduari geroz eta ikasle gehiago daude eta horrekin batera, ezinbestean, geroz eta anitzagoa bihurtzen ari da. Aldi berean, ikus daiteke euskararen erabileraren datuak jaisten ari direla eta komunikazio konpetentzia ere galtzen ari dela.

1.4. ONDORIO SEGREGATZAILEAK ETA DISKRIMINATZAILEAK DITU

Bere edo familiaren jatorriatik "atzeritar jatorriko ikasle"¹ direnen kopurua eta proportzioa gora doa. Hala ere, hizkuntza eredu ezberdinetan ez dira berdin banatzen. A ereduari kontzentratu dira ikasle hauek, bereziki DBHn. Gainontzeko ereduari ikasle horien presentzia gora doan arren, oraindik diferentziak nabarmenak dira. Eta banaketa hau ere ez da berdina D ereduaren barruan lurralde guztian zehar. Guztiari D ereduari esaten diogu, baina horren barruan aurkitzen diren errealitateak oso ezberdinak dira ikastetxe batetik bestera, herri batetik bestera. Muturretara joanda, eta bakarrik hizkuntzen errealitateak, badira D ereduari ikastetxeak zeinetan ume gehienek etxean eta kalean euskara duten eta badira beste batzuk gelan 15 hizkuntza ezberdin eta kalean gaztelania besterik ez dutenak.

Atzeritar jatorriko ikasleen ehunekoaren bilakaera, hizkuntza-ereduaren arabera





Grafikoa: Aztiker - **Iturria:** Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. ISEI-IVEI. 2021 I EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN DIAGNOSTIKOA.

Atzeritar jatorriko ikasleek eta bertako jatorria dutenek sei kompetentzia ezberdinetan lortzen dituzten emaitzak alderatuta, euskararen kompetentzian ematen dira alderik handienak, are gehiago, DBH2n.

¹EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN DIAGNOSTIKOA txostenean terminologia hori erabiltzen da eta horrela definitzen da: Atzeritar jatorriko ikasleak, hau da, atzerrian jaio direnak edo guraso bat, gutxienez, atzeritarra Dutenak.

Bertako jatorria duten ikasleen eta atzerritar jatorriko ikasleen emaitzen arteko aldearen bilakaera. LH 4 eta DBH 2. ED09-ED19 (bertako jatorria duten ikasleen alde)



Grafikoa: Aztiker - **Iturria:** Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. ISEI-IVEI. 2021 I EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN DIAGNOSTIKOA.

2. GIZARTE INGURUNEA BALDINTZATZAILE ETA ERAGILE GISA

2.1. HIZKUNTZA-KONPETENTZIETAN ETA EUSKARA ERABILERAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

Aurreko datuak kontuan hartuta, eta baita intuizioz ere, euskararen ezagutzan lortzen diren emaitzetan (baita gainontzekoetan ere), ikaslearen eta eskolaren ezaugarrietatik haratago beste aldagai batzuk ere eragiten dutela pentsa genezake. Baina zeintzuk?

Euskal hezkuntza-sistemaren diagnostikoan hiru aldagai aipatzen dira bi hizkuntza ofizialetan hizkuntza-konpetentzia eskuratzeko baldintzatzaile nagusi gisa: ISEK maila, egokitasuna eta familia-hizkuntza.

Arrue ikerketetan, euskararen ikastetxeko erabilerari eragiten diotenak, nagusiki Hizkuntza eredua, Etxeko erabilera orokorra, Irakasleen erabilera beraien artean, Eremu soziolinguistikoa, Ikastetxeko ISEK maila eta Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izatea dela azaltzen da. Beraz, badira aldagai batzuk eskolarekin zuzenean lotutakoak (Hizkuntza eredua, Irakasleen erabilera beraien artean eta neurri batean Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz) eta beste batzuk ikaslearen zein eskolaren ingurunearekin lotuak (Etxeko erabilera orokorra, Eremu soziolinguistikoa eta Ikastetxeko ISEK maila). Hau da, **ikasleen elebitasuna lortzeko, ezinbestean begirada zabaldu eta ikastetxetik haratago dagoena aztertu eta kontuan hartu beharra dago.**

Erregresio anizkoitz bidezko analisia, 2017					
LH4	Aldagaia	R ²	DBH2	Aldagaia	R ²
1	Hizkuntza eredua	0,334	1	Etxeko erabilera orokorra	0,471
2	Etxeko erabilera orokorra	0,498	2	Hizkuntza eredua	0,599
3	Irakasleen erabilera beraien artean	0,588	3	Irakasleen erabilera beraien artean	0,645
4	Eremu soziolinguistikoa	0,605	4	Eremu soziolinguistikoa	0,681
5	Ikastetxeko ISEK maila	0,609	5	Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz	0,688
6	Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz	0,611	6	Euskarazko hizkuntza-konpetentzia	0,691
7	Euskarazko hizkuntza-konpetentzia	0,612	7	Ingelesezeko hizkuntza-konpetentzia	0,692
8	Gaztelaniazko hizkuntza-konpetentzia	0,615			
9	Ikaslearen ISEK maila	0,616			
10	Eskolaz kanpoko jarduerak gaztelaniaz	0,616			

Grafikoa: Aztiker - **Iturria:** Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza saila. ARRUE IKERKETA, 2011-2017.


2.2. LEHEN HIZKUNTZA ETA FAMILIA-HIZKUNTZA

Familia-hizkuntza euskara izatearen aldagaien honako familia hauek sartzen dira: gutxienez gurasoetako batek, amak edo aitak, euskaraz hitz egiten duten eta etxean euskaraz nahiz gaztelaniaz edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten duten familiak.

Lehen hizkuntza edo H1 euskara izatea, 3 urte bete aurretik ikasitako lehen hizkuntza (edo lehen hizkuntzetako bat) euskara izan dela esan nahi du.


Datuetara joz, familia-hizkuntza eta lehen hizkuntza euskara izatea ala ez, egungo sistemaren elebidun bilakatzeko edo izatera iristeko, baldintzatzen duten aldagaiak dira. Hau da, euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza gaitasun nahikoa eskuratzeko aukera handiagoa da baldin eta familia-hizkuntza edo/eta lehen hizkuntza euskara bada.

Hurrengo grafikoetan, H1 euskara edo beste hizkuntza bat duten ikasleen ehunekoa aurkezten da, baita ikasleen ehunekoa familia-hizkuntzaren arabera ere. Datu horiek aztertuta, lehen hizkuntza edo familia hizkuntza euskara dutenen artean, gehienak bi hizkuntzetan konpetentzia ona lortzen dute. Aldiz, euskara ez dutenen artean, askok lortzen dute elebitasun hori, baina beste askok ez. Lorpen hauek handiagoak dira LH4n, DBH2n baino.



2.3. EREMU SOZIOLINGUISTIKOA

Logikotzat hartu daiteke eremu erdaldunetako ikastetxeetan ikasleek euskara gutxiago erabiltzea eta alderantziz. Baina datuei erreparatuta argi ikusten da hori ez dela lege bat. Ikastetxeetan ematen den euskara erabilera orokorra eremu soziolinguistikoaren arabera aztertuta, ikusten da LH4n gaitasun nahiko handia dagoela eskolak inguruaren eragina neutralizatzeko. Hau da, eskolak inguruko joeren kontra, hizkuntza hegemonikoa neutralizatu eta euskararen erabilera altuak lortzen ditu bere esparruan, baita gunee erdaldunetan ere. Aldiz, DBH2n inguruarekin antzekotasun handiagoa du eskola barruan dagoen euskara erabilera orokorra.




Grafikoa: Aztiker - **Iturria:** Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza saila. ARRUE IKERKETA, 2011-2017.

Hemendik ondorio bat atera daiteke. Ikasleak geroz eta nagusiagoak izan, bere sozializazioan eskolaren eragina geroz eta txikiagoa da. Ondorioz, ikaslea inguratzen duten errealitate sozialaren eremu ezberdinek eskolari gailentzen zaizkie.

2.4. KULTURA ETA AISIA

Zeintzuk dira ikasle hauek inguratzen dituzten eremu horiek? Hurrengo grafikoan 10-15 urte arteko gazteek, aste guztia kontuan hartuta eta eguneko batezbesteko, zertan ematen duten bere denbora agertzen da. Eskolan 5,1 ordu eta aisian 4,1 ordu pasatzen dituzte. Hau da, **kultura edo aisian erabiltzen den denbora eskola orduen %80aren pareko da**. Kultur edo aisialdirako denbora horretatik aisialdi aktiboa 2,1 ordu eta pasiboa 2,0 ordu dira. Horrek azaltzen du eskolatik kanpo gertatzen dena zergatik den hain garrantzitsua eta ondorioz, **aisialdi horretan egiten dena gakoa da eskolan egiten dena lagundu eta indartzeko (edo kontrako).**


Denbora erabilera adinaren arabera. Aurrekontuen Inkestako Mikrodatuak 2018



Grafikoa: Aztiker. - **Datuak** Aztikerrek egina mikrodatuetatik abiatuta - **Iturria:** EUSTAT. Denbora-Aurrekontuen Inkestako Mikrodatuak 2018. MIKRODATUAK


Denbora tarte horretan zer egiten duten eta zein hizkuntzan, ez dugu hemen sakonduko. Hala ere ideia bat egiteko datu bat ekarri dugu. *Ohiturak, praktikak eta kontsumo kulturalak*. 2018 inkestaren arabera, kultur praktikaren arabera gaztetxoek euskara erabilerako edo kontsumo nahiko ezberdina da. Inkestaren arabera 15-24 urte artekoetan %76,8 dira euskal hiztunak eta erregulariki euskarazko kultur-jardueraren bat egiten duten gazteak %39 dira. Euskarazko kontsumorik altuena musikan ematen da. Hain altua da kontsumoa, 25-34 urte artekoetan euskal hiztunak direnak baino gehiagok entzuten baitute musika euskaraz. 15-24 urte arteko gazteen artean irratia euskaraz entzuten dutenak ere gehiengo dira (%51,5). Hortik aurrera praktika eta kontsumo kulturalak nagusiki gaztelaniaz egiten dira, are gehiago horiek modu digitalean egiten badituzte (musika entzun edo irakurri adibidez). Datu horrek berebiziko garrantzia du, kontuan hartzen badugu oso txikitatik, denetariko pantailen erabilera handia dela, egunerokoa eta are gehiago asteburuetan: Asteburuetan pantailen aurrean 2 ordu baino gehiago ematen dituzten 2-14 urteko biztanleak %70 baino gehiago dira.

EAEko 15-24 eta 35-34 urteko biztanleria praktika kulturalak euskaraz, 2018



Grafikoa: Aztiker - **Iturria:** Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Ohiturak, praktikak eta kontsumo kulturalak. 2018

2-14 urteko biztanleen ehunekoa, lanegunetan eta asteburuetan pantailen aurrean 2 ordu baino gehiago igarotzen dutenak sexuaren arabera, 2018



Grafikoa: Aztiker - **Iturria:** Eusko Jaurlaritza. Osasun saila. Osasun inkesta 2018. EAEOI 2018

3. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

1. Hezkuntzaren helburu nagusiak ekitatea, berdintasuna, inklusioa, kohesioa, bikaintasuna... baldin badira, ulertu daiteke **benetako elebitasunik gabe, elkarbizitza linguistikorik ez dela emango eta ondorioz helburu horiek hankamotz geratuko direla**. Hortaz, ezinbestean hizkuntzei dagokienean helburua izan behar da EAE guztian ikasle guztiek bi hizkuntzetan gaitasun maila bera eta ona lortzea. **Hizkuntzen Europako esparruaren erreferentziarako B1 maila Lehen Hezkuntza amaitzean eta B2koa Bigarren Hezkuntza amaitzean da adostasun zabal bat lortu izan duen irizpidea**.
2. **Euskara komunikazio-hizkuntza denean emaitzak nabarmen hobetzen dira**. Beraz, hori izan beharko luke marko orokorra. Baina aldi berean, leku bakoitzeko berezitasunei eta beharrei egokitzeko malgutasuna behar da. Beraz, **murgiltze (mantentze) eredu orokortua eta malgua** behar da. Hori abiapuntua izanik, marko orokorrak bermatu beharko luke **behar gehien dagoen lekuan baliabide gehiago** egotea.
3. Datu ezberdinetan ikusi den bezala, eskolak lan asko egin du eta egiteko du. Aldi berean, bere lana hobetu behar du. Baina ikusi da ere eta askotan esan izan da, eskolak bakarrik ezin duela dena egin. Horregatik uste dugu **Hezkuntza akordioa** beharrezkoa dela, baita eskola bere ingurunearekin konektatzen eta indartzen lagunduko duen **Hizkuntza akordio bat** ere bai. Batak bestea (eta alderantziz) elikatu behar du. Datuetan ikusi den bezala, akordio horietarako baldintza sozialak aldekoak dira.
4. Aipatu marko orokor horren barruan, eta eskolari ezartzen zaizkion elebitasun helburuak lortzeko, **ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza-proiektu propioa diseinatu eta garatu beharko luke**. Hizkuntza-proiektu hori kontuan hartu beharko luke ikasle bakoitzaren errealitatea (eta horren barruan hitz egiten dituzten eta ez dituzten hizkuntzak identifikatu eta kontuan hartu). Hezkuntza formala eta ez-formala. Eskola barruko espazioa eta kanpoko. Finean, hizkuntza-proiektuan **familiekin, guraso-elkarteekin eta inguruko kultura-, kirol- eta aisialdi-elkarteekin batera** proiektua garatzeari erreferentzia esplizitua egin beharko litzaioke. Eskola umeen eta haien ingurunearen euskalduntze motorea da. Baina **eskola barrukoa indartzeko**, bere **eragina eskoletako hesietatik kanpora hedatu behar du**, bereziki ingurune soziolinguistiko erdaldunagoetan. Gainera konprobatua dago komunitate inplikatuak eskola arrakasta lortzen dutela.
5. **Euskarazko kulturen errota**. Euskalduntzea indartsuagoa izango da kultur transmisioa bermatuz, mundu sinboliko bat(zuk), afektibitate sare bat(zuk), erreferentzia sare bat(zuk), euskararen mundu erakargarri bat(zuk) eskainiz, euskaraz bizitzeko aukera emanez. Hori gabe, euskara komunikazio, edo are gehiago, ikasketa hizkuntza soil gisa transmitituz, euskalduntzearen helburua lortzea zailago izango da.
6. Guzti hau modurik egokienean egin ahal izateko **ikerketak sakonagoak** behar dira eta beharko dira: **hizkuntza-errealitatearen ingurukoak** edota **eskoletan euskalduntze prozesuan egiten diren eskuhartzeen egokitasunaren edo eraginkortasunaren ingurukoak**. Aurrera egitea ahalbidetuko duten **proposamenak eta esperientzia pilotuak** egitearekin batera.

4. DATUEN ITURRIAK

- Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. ISEI-IVEI. 2021 I EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN DIAGNOSTIKOA.
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza saila. ARRUE IKERKETA, 2011-2017.
- EUSTAT. DENBORA-AURREKONTUEN Inkestako Mikrodatuak 2018.
- Eusko Jaurlaritza. Osasun saila. OSASUN INKESTA 2018. EAEOI 2018
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetea – Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza. EUSKARA. JARRERAK ETA IRITZIAK (Landa lana: 2014/12/17-18)
- Eusko Jaurlaritza. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. OHITURAK, PRAKTIKAK ETA KONTSUMO KULTURALAK. 2018